

# Illimani: Boliviako izpiak eta hizkiak



Twantinsuyu-Qollasuyu esaten diote indigenek, Bolivia esaten diogu guk. Amets Arzallusek eta Txomin Txuekak hogeiei egun pasa zituzten han, gure Bolivian. Bertan gertatzen ari diren aldaketa politiko eta sozial sakonak beren begiz ikusi eta beren belarriz entzutera joan ziren, gero Euskal Herrian zabaltzeko asmoarekin. Zorteko izan ziren; besteak beste Felipe Quispe gerrilla burua ezagutzeko aukera izan zuten, La Pazeko kartzelarik handienaren barruan pasa zuten goiz bat, Sanchez de Lozada diktadoreak piztutako gasaren gerrako biktimekin ere egon ginen, eta Evo Moralesek atea zabaldu zien. ARGIA aldizkarian erreportaia sorta bat argitaratu zuten, eta liburua atera ere bai gero Durangoko azokan, "Illimani: Boliviako izpiak eta hizkiak". Orain, hitzaldi audiobisual bat muntatu dute, erakusketatxo batekin janzten dena. Ordu eta erdian, hitza, argazkiak, bideoak, bertsoak... denetik, Bolivia gertuago ikus, senti, eta uler dezagun. Eta indigenak askeago izan daitezen, bide batez.

Partaideak: Amets Arzallus eta Txomin Txueka.

Behar dena: Proiektorea eta pantalla

-----Kontratazioa-----



[www.lanku.com](http://www.lanku.com)

[lanku@lanku.com](mailto:lanku@lanku.com) – [marketina@lanku.com](mailto:marketina@lanku.com)

tfn: 943 260 755 – 675 716 472